

MERKATU SEGMENTUA

Sortuko dugun aplikazioa mundu guztiarentzat erabilgarria dela irizten diogu, izan ere, gailu elektrikoaren kudeaketa antolatzea ahalbidetzen duen aplikazioa da gurea. Gaur egun, etxe guztiak gailu elektrikoak josituta ditugun honetan, gure proiektuak badu arrakastatsua izateko nahikoa arrazoi, merkatu handia izango bailuke.



Bezeroen segmentazioaren arabera, merkatu mota ezberdinak bereizten dira: merkatu masiboa, nitxoa eta segmentutakoa. Gurea, merkatuaren eta bezeroen ezaugarriak kontuan hartuta, merkatu masiboa da. Merkatu mota hau izatearen arrazoiak honakoak dira: antzerako behar eta arazoak dituzten kontsumitzaileen talde handia daukagu. Lehen aipatu dugun moduan, gaur egun etxe guztietan daude gailu elektrikoak, beraz, jende askori ase diezaiekegu horiek nahi moduan antolatu eta kudeatzeko beharra, besteak beste, esaterako, dirua aurrezteko. Ildo berari jarriki, bai balorezko proposamenak, bai banaketa kanalak, eta bai bezeroarekiko harremanak talde handi eta bakar batean oinarrituta daude, zeinak antzeko beharrezkoak eta arazoak dituen. Elektronikaren sektorean ikus dezakegu sarritan mota honetako negozio-eredua.